



16.ZIRKULARRA

2020-21 Denboraldia

EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILAKO KADETE TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Lehen Mailako Kadete lehiaketa antolatzen du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

1 TALDEA		2 TALDEA	
1	HONDARRIBIA F.E	1	GOIERRI GORRI F.K. "A"
2	TOURING KE	2	USURBIL F.T.
3	ALLERRU K.J.K.E	3	ORIOKO F.T.
4	OIARTZUN K.E. "B"	4	SPORTING DE HERRERA
5	OIARTZUN K.E. "A"	5	MARTUTENE K.E.
6	ANTIGUA LUBERRI K.E.	6	AÑORGA K.K.E
7	ANTIGUOKO K.E.	7	SANTO TOMAS LIZEOA K.E.
8	INTXAURDI K.E. "B"	8	INTXAURDI K.E. "A"

3 TALDEA		4 TALDEA	
1	AIZKORRI F.T.	1	ALOÑA MENDI K.E.
2	DANENA K.E.	2	AMAIAKAK BAT K.E.
3	EUSKALDUNA S.D.	3	BERGARA K.E. "A"
4	GOIERRI GORRI F.K. "C"	4	BERGARA K.E. "B"
5	GOIERRI GORRI F.K. "B"	5	LAGUN ONAK C.D.
6	TOLOSA C.F.	6	MUTRIKU F.T.
7	URNIETA K.E.	7	UROLA K.E.
		8	ZESTOA K.B.

2) LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Lehen Mailako Kadeteen Liga **31 taldek** osatzen dute, 8 ekipoko 3 multzoetan eta bata 7 ekipokoak. Bi fasetan jokatu da: puntuaren bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakundeko Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A. Txapeldunen Fasea:

Lehenengo hiru sailkatuek (3x4=12) 6 ekipoko bi taldetan banaturik, Txapeldunen Fasea jokatu da eta bi itzulietara (10 jardunaldi).

Ohorezko Kadete Mailara lehenengo hiru sailkatuak igoko dira.

2021-05-16ko datan, talde bakoitzeko lehen sailkatuak Finala jokatu du kategoriako txapelduna ezartzeko. Bigarren sailkatuek 3. eta 4. postuak jokatu dituzte igotzeko plaza jokoan izanik, betiere menpeko taldeak ez badira.

2021-05-16ko datan, talde bakoitzeko lehen sailkatuak partida bakarrera eta zelai neutralean Finala jokatu du, eta bigarren eta/edo hirugarren sailkatuek, berriz, partida bikoitzera igotzeko kanporaketak jokatu dituzte.

B.Gipuzkoa Kopa:

Beste guztiek Gipuzkoa Kopa jokatu dute

3) ADINAK

Txapelketa honetan 2004, 2005 eta 2006 urtetan jaiotakoek parte hartu dezakete.

4) LIZENTZIAK

Lizentzien kopuru maximoa 25 dira. Halere denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

5) BALOIA

Baloia, 5 zenbakikoa izango da.

6) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

70 minutu, bost aldaketa, eta gehienez zazpi ordezkoko eserlekuan.

7) XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen F-8 Infantileko taldean izena emanda duten azken urteko jokalaririk infantilak, kadete mailan izena eman eta jokatu dezakete ondorengo izapidek aldeztu aurretik betetzen badira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arrazoitua, proposatutako jokalaririk zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Instituziotik baimena izatea.
- Azterketa Medikuaren ziurtagiria aurkeztea
- Mutualitatean afiliatua egotea
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

Aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil neskek segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantilean bidegabeki jokalaria-zerrendan sartu izan dela kontsideratuko da aste buruan bi partiduetan parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetan izan.**

8) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

9) COVIDren ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren lehiaketak garatzeko aplikazio-protokoloa.

Emakumezkoen 1. Kadete Maila bi faseetan jokatu du.

Lehiaketan gerta daitezkeen gorabeherak aurreikusi ezinak direla kontuan hartuta eta COVID-19 aren ondorioz ezarritako protokoloek eragin ditzakeen konfinamenduak direla eta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren jarduneko Zuzendaritza Batzordeak honako hau erabaki du:

1.- Lehentasuna ematea lehen faseko partida guztiak amaitzeari, eta, beharrezkoa izanez gero, egutegien datak luzatzea, lehiaketa bi fasetan jokatzen duten kategoria guztietan.

2020ko irailaren 17ko Batzar Orokorrean proposatu eta onartutako lehen faseko lehiaketen egutegiak partidurik gabeko asteburu edo jaiegun batzuk aurreikusten ditu, eta horri esker, pandemiagatik atzeratutako norgehiagokak jokatu daitezke.

2.- Lehenengo fasea amaitzea lehenetsi gabe ere ezin bada amaitu, honako hau xedatu da:

2.1.- Lehen fasea.

a) Talde guztiek ezin badute fase honen % 70 jokatu, denboraldia baliogabetzat joko da.

b) Talde guztiek lehen fasearen % 70 gutxienez joka badezakete, baina guztiek ezin badute fase horren % 100 jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketa gertatuz gero, berdinduta dauden taldeen aldeko eta kontrako golen aldea erabiliko da.

2.2.- Bigarren fasea

a) Bigarren faseko partiden % 70 gutxienez jokatzetik ez badago, baliogabetzat joko da, eta, beraz, behin betiko sailkapenei lehen faseko sailkapenak aplikatuko zaizkie, lehenengo faseko) puntuan zehaztutako irizpideei jarraituz, igoeretarako eta jaitsieretarako.


b) Talde guztiek bigarren fasearen % 70 gutxienez jokatzetik lortuko balute, baina denek ezin badute fase horren % 100a jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, aldeko eta kontrako golen arteko aldea erabiliko da.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzi diren hurrenkeran, ordena hori aldatu ahal izango da Federazioaren baimenarekin eta COVID-19tik eratorritako arrazoiengatik. Partidarik gabeko asteburuak edo jaiegunak kontuan hartzeko ahalegina egingo da.
- Konfinatuta egon den talde batek hurrengo partida jokatu beharko du, baldin eta konfinamendua asteazkena (barne) baino lehen altxatzen bada, ostegun eta ostiralean saioen bat egiteko denbora daukala ulertuta.
- Klub bakoitzeko COVID arduradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Federazioari kasu positibo bat edo konfinamendu masibo bat duenean, kaltetutako pertsonen kopurua eta Osakidetzak konfinatutako pertsonen normaltasunera itzultzeko eman zaizkien epeak zehaztuz.
- Talde batek atzeratutako jardunaldiari aurre egin ahal izango diola ulertuko da dagokion taldeko federazioan izena emandako jokalarien % 70 gutxienez duenean.

Donostia, 2020ko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL



Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General